



## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARRISKU ERRADIOLOGIKOARI AURRE EGITEKO LARRIALDI PLAN BEREZIAREN ALDAKETA

Euskal Autonomia Erkidegoko Arrisku Erradiologikoari Aurre Egiteko Larrialdi Plan Berezia, Gobernu Kontseiluaren 2014ko ekainaren 24ko Erabakiaren bidez onartutakoa, honela aldatu da:

**Lehenengoa.** 1. ataleko (Sarrera) 1.1 puntuan (Helburua eta irismena) lehen paragrafoa aldatu da eta honela idatzi da:

*“Plan honek Euskal Autonomia Erkidegoan gerta daitezkeen larrialdiei aurre egitea du helburu, material erradioaktiboen presentziak pertsonak, ondasunak edo ingurumena arriskuan jar ditzakeenean, zati batean nahiz guztiz; desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuen beharrak Planeko fase guztietan kontuan hartuta, horien asistentzia eta segurtasuna bermatzeko jarduketa-protokolo espezifikoak ezarriz”.*

**Bigarrena.** 1. ataleko (Sarrera) 1.2 puntuan (Oinarrizko funtzioak):

Lehen gidoia aldatu da eta honela idatzi da:

*“Sor daitezkeen larrialdi-egoeretan esku hartzeko antolaketa-egitura eta prozedurak aurreikustea, eta planeko faseetan jarduketa-protokolo espezifikoak ezartzea desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia emango zaiela bermatzeko”.*

Era berean, informazio-prozedurei buruzko seigarren gidoia aldatu da eta honela idatzi da:

*“Eragindako herritarrei, Herri Administrazioetako erakunde eskudunei eta gizarte-komunikabideei informazioa helarazteko prozedurak ezartzea, baita larrialdian zehar esku hartzen duten langileei informazioa helarazteko prozedurak ere. Prozedura horiek formatu egokiak eta beharrezko baliabideak izan beharko dituzte desgaitasuna daukaten pertsonentzat edo zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboentzat irisgarriak eta ulergarriak izateko. Desgaitasuna duten biktimei edo biktimaren senideei informatu behar zaienean, egin beharreko egokitzapenak egingo dira eta, hala badagokio, langile espezializatuen laguntzarekin”.*



Horrez gain, beste gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

*“Desgaitasuna daukaten pertsonen beharrei erantzuteko behar diren baliabideen jarduera eta mobilizazio-prozedurak ezartzea, asistentzia eraginkorra bermatzeko”.*

**Hirugarrena.** 1.3 ataleko (Lege-esparrua eta erreferentziazko araudi teknikoa) 1.3.1 puntuan (Larrialdi erradiologikoekin lotutako autonomia-erkidegoko, nazioko eta nazioarteko arauen zerrenda), Babes Zibileko araudi nazionalaren barruan azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

*“734/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, zeinaren bidez babes zibileko plangintzaren oinarriko jarraibideak eta babes zibileko Estatuko planak aldatzen diren, larrialdiak gertatzen direnean desgaitasuna duten pertsonen eta egoera bereziki ahulean dauden taldeei eskaintzen zaien arreta hobetzeko xedez”.*

**Laugarrena.** 3. ataleko (Planaren egitura eta antolamendua) 3.1 puntuan (Planaren zuzendaria), eginkizunen barruko hamaikagarren gidioa aldatu da, informazioa emateko prozedurei buruzkoa, eta honela idatzi da:

*“Zuzeneko eraginpeko herritarrei eman beharreko informazioa zehaztea eta koordinatzea; bai larrialdiari buruzko informazio orokorra, bai hartutako neurriak; informazio hori desgaitasuna daukaten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izango dela bermatzeko. Nola ezagutarazi eta gizarte-hedabideei eta hainbat administratziotako erakundeei zein informazio ofizial eman erabakitzea”.*

**Bosgarrena.** 3. ataleko (Planaren egitura eta antolakuntza) 3.4 puntuan (Informazio Kabinetea), eginkizunen barruko seigarren gidioa aldatu da, biktimei eta haren senideei informazioa emateari buruzkoa, eta honela idatzi da:

*“Zuzeneko eraginpeko herritarren senideei eta biktimei informazio pertsonala ematea. Desgaitasuna duten biktimei edo biktimaren senideei informatu behar zaienean, egin beharreko egokitzapenak egingo dira eta, hala badagokio, langile espezializatuen laguntzarekin”.*

Eginkizunen barruan zazpigarren gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

*“Ziurtatzea informazio hori desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria dela”.*



**Seigarrena.** 3.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 3.7.2 puntuan (Esku Hartzeko taldeak):

Eginkizunen barruko laugarren gidoia aldatu da, bizirik irten eta harrapatuta geratu direnen bilaketari, salbamenduari eta erreskateari buruzkoa, eta honela idatzi da:

*“Bizirik irten eta harrapatuta geratu direnen bilaketa, salbamendua eta erreskatea; desgaitasuna daukaten pertsoneri eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzearekin batera”.*

Eginkizunen barruko bosgarren gidoia aldatu da, herritarrak babesteko neurriak hartzeko beste taldeekin lankidetzan aritzeari buruzkoa, eta honela idatzi da:

*“Beste taldeekin lankidetzan aritzea, herritarrak babesteko neurriak hartzeko garaian, eta desgaitasuna daukaten pertsoneri eta zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboek asistentzia egokia bermatzea”.*

**Zazpigarrena.** 3.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 3.7.3 puntuan (Segurtasun-taldea):

Eginkizunen barruko hamaikagarren gidoia aldatu da, hala eskatzen bazaie herritarrak ohartarazten laguntzeari buruzkoa, eta honela idatzi da:

*“Hala eskatzen bazaie, herritarrak ohartarazten laguntzea; eta ziurtatzea informazioa formatu egoki eta beharrezko mekanismoen bidez ematen dela, abisuak desgaitasuna daukaten pertsonentzat eta zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboentzat irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen”.*

Eginkizunen barruan azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

*“Desgaitasuna duten pertsoneri eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.*

**Zortzigarrena.** 3.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 3.7.4 puntuan (Osasun-taldea), eginkizunen barruko hirugarren gidoia aldatu da, izan daitezkeen eraginpeko pertsoneri presazko osasun-laguntza eta lehen sorospena emateari buruzkoa, eta honela idatzi da:

*“Izan daitezkeen eraginpeko pertsoneri presazko osasun-laguntza eta lehen sorospena ematea, eta desgaitasuna daukaten pertsoneri eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.*



**Bederatzigarrena.** 3.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 3.7.5 puntuan (Talde logistikoa) eginkizunen barruan azken gidoi bat gehitu da eta honela idatzi da:

*“Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideen mobilizazioa eta jarduera kudeatzea, eta horrela asistentzia eraginkorra ematen zaiela bermatzea, irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikoak kontuan hartuta”.*

**Hamargarrena.** 4.5 ataleko (Eragiteko egoerak) 4.5.2 puntuan (1, 2 eta 3. egoerak aktibatzea (Larrialdia)) aldaketa hauek egin dira:

4.5.2.1 puntuan (1. egoera aktibatzea) lehen gidoia aldatu da, herritarrei informazioa emateari buruzkoa, eta honela idatzi da:

*“Herritarrak informatzea, prebentzioa helburu, eta ziurtatzea informazioa desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria dela”.*

4.5.2.2 puntuan (2. egoera aktibatzea) lehen gidoia aldatu da, herritarrei informazioa emateari buruzkoa, eta honela idatzi da:

*“Herritarrei informazioa ematea, autobabeserako aholkuak ere bai, batez ere aurreikusitako komunikabideen bidez. Informazioa desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria dela ziurtatu behar da”.*

**Hamaikagarrena.** 4. ataleko (Eraginkortasuna) 4.6 puntuan (Herritarrak babesteko neurriak) bigarren paragrafoa aldatu da eta honela idatzi da:

*“Larrialdi erradiologiko batean esku hartu duten langileen edo kaltetutako herritarren osasunean berehalako zein geroagoko ondorioak saihestea edo arintzea helburu daukaten ekintza guztiak hartuko dira babes-neurritzat, eta beti bermatu behar da desgaitasuna daukaten pertsoneri eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia ematen zaiela”.*

**Hamabigarrena.** 4.6. ataleko (Herritarrak babesteko neurriak) 4.6.1.1 puntuan (Konfinamendua) bigarren paragrafoa aldatu da eta honela idatzi da:

*“Neurria zenbat eta arinago hartu, orduan eta eraginkorragoa izango da. Herritarrei berehala eman behar zaie istripuaren berri, irrati-igorgailu instituzionalak, megafonia mugikorra, sirenak (erabilgarri egonez gero) edo beste komunikabide batzuk erabiliz”.*



*Abisuak eta informazioa desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen, formatu egokiak eta beharrezko mekanismoak erabili behar dira. Gainera, desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzungo dieten informazio- eta jakinarazpen-prozedurak erabili behar dira; horrela asistentzia eraginkorra ematen zaiela bermatzeko, beti ere irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikoko kontuan hartuta. Udalerriek neurri hori modu egokian aplikatzen dela bermatuko dute”.*

**Hamahirugarrena.** 4. ataleko (Eraginkortasuna) 4.7 puntuan (Larrialdian zehar herritarrei informazioa ematea) lehen paragrafoa aldatu da eta honela idatzi da:

*“Plana aktibatzen denean, herritarrei informazioa ematean Informazio-kabinetearen aginduei jarraituko zaie, Planaren zuzendariak emandako jarraibideen arabera. Zuzendariak daukan informazioa aginte-postu aurreratutik (APA), eragindako instalaziotik (horrelakorik badago), Udaletik eta Aholku Batzordeko kideak diren talde-buruengandik jasotakoa da. Informazio hori oinarri hartuta, Informazio-kabinetek prestatuko ditu kasuan kasuko jakinarazpenak, bere jarduketa-planari jarraiki. Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzungo dieten informazio- eta jakinarazpen-prozedurak erabili behar dira; horrela asistentzia eraginkorra ematen zaiela bermatzeko, beti ere irisgarritasun unibertsala bermatzen dituzten neurri eta baliabide espezifikoko kontuan hartuta. Abisuak eta informazioa desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen, formatu egokiak eta beharrezko mekanismoak erabili behar dira”.*

**Hamalagarrena.** 7. ataleko (Plana ezarri eta haren eraginkortasuna mantentzea) 7.1.1 puntuan azken paragrafo bat gehitu da, honela idatzita:

*“Larrialdietan esku-hartzeko zerbitzuek berariazko prestakuntza ere jaso beharko dute desgaitasuna daukaten pertsonak eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuk artatzeko, ager daitezkeen ezaugarri eta behar bereziak kontuan hartuta”.*

**Hamabosgarrena:** 7. ataleko (Plana ezarri eta haren eraginkortasuna mantentzea) 7.1.4 puntuan (Planaren eraginkortasuna egiaztatzea) bigarren paragrafoa aldatu da eta honela idatzi da:

*“Plana egin eta ezarri ostean, aldi-aldi ariketak eta simulazioak programatuko dira eraginkorra den edo haren barruko alderdiren bat berrikusi beharra dagoen ikusteko. Horietan, desgaitasuna duten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste*



*kolektibo batzuei asistentzia egokia ematen zaiela egiaztatu beharko da. Ariketak egiteko, planari esleitutako baliabide materialak edo giza baliabideak partzialki mobilizatuko dira eta ekintza-talde bakoitzak prestatu ahal izango ditu. Simulazioak egiteko, planari esleitutako baliabide eta egitura guztiak parte hartuko du eta planaren zuzendaritza-erakundeek prestatu behar dituzte”.*